

Ipar Irlandako Southern Regionanl College-eko ikasleak

2008/03/07

Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien Fakultateak, Ipar Irlandako, Heziketa Zikloetako Southern Regional College zentruko ikasle talde baten bisita jaso du.

Otsailaren 25etik martxoaren 7ra, 6 ikasle izan ditugu gure artean eta beraiekin batera bi irakasle etorri dira.

Ikasle hauek, National Diploma Business-eko bigarren ikasturtean daude Southern Regional College-en eta aurtengo ekainean bukatuko dituzte beraien ikasketak.

Ikasleak, Billy Hobson, Kelly Cloughley, Nathan Mahaffy, Lindsay Boyce, Darren Agnew eta Gemma Murtagh izan dira eta beraiekin egon diren bi irakasleak berriz, Mrs. Kathleen Glass eta Mr. John Robinson.

Bisitaldi hau, LEONARDO europear programak finantziatuta egin da.

Hemen izan ditugun bitartean, ikasleek, ekintzailetasunean, berrikuntzan, ekonomian eta baita ere kultura orokorreko ikasketak jaso dituzte eta aldi berean, Mondragon Corporación Cooperativa-ko (MCC) eredu kooperatiboa ezagutzeko aukera ere izan dute. Guzti honetarako, hiru aktibitate mota uztartu dira. Alde batetik, ikastaroak, bestetik ekintzailetasun eta kooperatibismoari buruzko tailerrak eta MCC eta inguruko kooperatiba eta enpresak bisitatu dituzte. Ondokoak izan dira empresa bisitatuak: ULMA Packaging, Mondragon Corporación Cooperativa, STADLER, S.A., Ampo Poyam S.Coop. eta LANA Coop.

